

LEGAZPIKO UDALA

Legazpiko babespeko apartamentuen udal erreglamendua (Meazti - Etxea).

AURKIBIDEA

1. Zer den.
 2. Printzipioak.
 3. Helburuak.
 4. Erabiltzaileen tipologia.
 5. Zerbitzuen tipologia.
 6. Prezioen araubidea eta ordaintzeko era.
 7. Eskubideak.
 8. Betebeharrak.
 9. Erabiltzaile izateari uztea.
 10. Barruko dokumentazioa.
 11. Parte hartzeko bideak.
 12. Barne araudia:
- Hutsegiteak eta zigorrak.

1. Babespeko apartamentuak zer diren.

Etxebizitza autonomoak dira, banakoak eta/edo bikoitzak, eta zerbitzu kolektiboak dituzte, nahi denean erabiltzeko; adineko pertsonen ostatu emateko dira, hau da, gorputzez, buruz eta gizarte-egoerari dagokionez baliabide handiagoak behar ez dituztenei eskaintzen zaien zerbitzua da (1998ko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretua, 3. adinekoentzako egoitza-arreta eskaintzeko zerbitzuei buruzkoa).

Mendetasuna dela-eta arreta handirik behar ez duten, baina ohiko bizitokian bakarrik moldatzen ez diren pertsonen eskaintzen zaien gizarte-baliabidea da. Hau da, babespeko apartamentuak pertsona horiei ostatua, mantenua eta arreta eskaintzeko dira. Helburua, pertsona horien osasunak okerrerako duen joera prebenitzea edo atzeratzea da, baita jendarteko eta elkarbizitzako harremanei eustea ere, bakardadea eta arriskuak saihestuz.

2. Printzipio orokorrak.

Autonomia printzipioa. Erabiltzaileen autonomia bultzatuko da; horregatik, zerbitzuko langileek erabiltzailearen mendetasun mailari dagozkion laguntzak baino ez dizkiote eskainiko.

Parte hartzearen printzipioa. Erabiltzaileak babespeko etxeko bizimodura osorik egokitzeko, ahalik eta gehien bultzatu beharko da haien parte hartzea apartamentuko ekintzetan eta funtzionamendu orokorrean.

Integrazio printzipioa. Babespeko apartamentuen filosofia laguntza eskaintzea da eta filosofia horrekin bat eginik, erabiltzaileek aurreko bizimoduari eutsi beharko diote, harremanei eta bestelakoei dagokienez.

Osoetasun printzipioa. Arreta integrala eskainiko da, erabiltzaileen osasuna eta ongizatea ahalik eta onena izan daitezen.

Norberari egokitutako zerbitzuaren printzipioa. Babespeko etxeko langileek erabiltzaile bakoitzaren beharren arabera arreta eskaini beharko dute.

Profesionalizazioaren printzipioa. Gizarte-boluntarioen lana osagarria eta beharrezkoa dela aitortzen dugu, baina babespeko etxeko langile guztiek beren maila profesionalari dago-kion prestakuntza teknikoak izan behar dute.

AYUNTAMIENTO DE LEGAZPIA

Reglamento regulador de los apartamentos tutelados de Legazpi, (Meazti - Etxea).

INDICE

1. Que es.
 2. Principios.
 3. Objetivos.
 4. Tipología de las personas usuarias.
 5. Tipología de servicios.
 6. Regimen de precios y forma de pago.
 7. Derechos.
 8. Obligaciones.
 9. Pérdida de condición de usuario.
 10. Documentación interna.
 11. Cauces de participación.
 12. Reglamento de régimen interno:
- Faltas y sanciones.

1. Que son los apartamentos tutelados.

Conjunto de viviendas autónomas individuales y/o dobles, que cuentan con servicios colectivos, de uso facultativo, y que dan alojamiento a personas mayores con una situación física, psíquica y social que no precisa recursos de mayor intensidad (Decreto 41/1998, de 10 de marzo, sobre servicios sociales residenciales para la tercera edad).

Es un recurso social orientado a ofrecer alojamiento, manutención y atención a personas mayores que no presenten grandes necesidades de atención en las actividades de la vida diaria pero que tengan dificultades para poder seguir residiendo en su entorno habitual. Se trata de prevenir o retrasar el deterioro progresivo de estas personas y favorecer el mantenimiento de sus relaciones sociales y de convivencia, evitando situaciones de aislamiento y riesgo.

2. Principios generales.

Principio de autonomía. Se deberá fomentar la autonomía de las personas usuarias, de modo que por parte del servicio no se le prestará mas asistencia tutelada que la estrictamente exigida por su nivel de dependencia.

Principio de participación. Con objeto de lograr la plena integración de las personas usuarias en los apartamentos tutelados, se deberá potenciar al máximo posible su participación en las actividades y el funcionamiento general de los apartamentos.

Principio de Integración. En consonancia con la propia filosofía asistencial de los apartamentos tutelados, se tenderá al mantenimiento de las personas usuarias en el entorno comunitario habitual.

Principio de globalidad. Se deberá prestar una atención integral en pos de la consecución del mayor nivel posible de salud y bienestar.

Principio de atención personalizada. El personal de los apartamentos tutelados deberá prestar una atención personalizada acorde con las necesidades de cada persona usuaria.

Principio de profesionalización. Reconociendo la validez complementaria del voluntariado social, y sin perjuicio de su labor, todo el personal de los apartamentos tutelados deberá tener la cualificación técnica correspondiente a su nivel profesional

3. Helburuak.

Helburu nagusia:

— Babespeko etxeko erabiltzaileek bizibaldintza egokiak izatea; horretarako, ahalik eta autonomia eta bizitza kalitate handiena izan dezaten ahaleginduko gara.

Helburu zehatzak:

— Adineko pertsona bere bizimodua duen ingurunean egon dadila sustatuko da.

— Erabiltzaileen beharrei arreta eskaintzea, programa egoiak garatzu ahalik eta autonomia handiena lortzeko.

— Erabiltzaileei beharrezko laguntza eta aholkularitza eskaintzea -bere bizimodua duen ingurunean jarrai dezaten-, eta beren buruaren zaintza-lanak egiteko jarraibideen berri ematea.

4. Erabiltzaileen tipologia.

Babespeko etxeko erabiltzaileek 60 urtetik gorako pertsonak izan behar dute, eta egoera psikiko, fisiko eta sozialari dagokionez, ez dute baliabide handirik beharko, eta beren burua gobernatzeko gai izango dira eguneroko kontuetan, bai oinarritukoetan, bai tresnekin ari direnean ere; beren kasa moldatutako dira laguntzarekin edo laguntzarik gabe.

Banako apartamentuetan, erabiltzaile bakarra izango da. Birentzako apartamentuetan, gehienez, bi pertsona sartuko dira; horietako batek, behintzat, aurreko atalean adierazitako adin-etsaera bete beharko du.

Hala ere, administrazioak ezarritako konpainiarako edo/eta elkarbizitzarako programaren batean parte hartzen duten pertsonak lehenetsuta izango dute jabetza publikoa duten bi pertsonarentzako apartamentuak erabiltzeko.

60 urte edo gehiago izatea.

Pertsona autonomia izatea, Gipuzkoako Foru Aldundiak hala balioetsita (EBJ).

Zerbitzu honetarako Gipuzkoako Foru Aldundiak egokitzat jotako pertsona izatea (RAI).

Modu berean, mendekotasun moderatuaren maila (MBB 1-1) duten pertsonak ere onartuak izan daitezke, baldin eta oinarrituko egoitza-zerbitzuetarako egokitzat jo badituzte edo/eta andeatze kognitibo arina badute edo/eta honelako ekipamenduek bere gain har ditzaketen gutxieneko osasun-zamak badituzte.

Baliabide horiek eskuratzeko onartuak izateko prozedura 2002ko apirilaren 30eko 20/2002 Foru Dekretuak zehaztuko du; izan ere, bera da Gipuzkoan mendeko pertsona adinduentzat plazak lortzeko arauak ezartzen dituen.

5. Zerbituen tipologia.

Hauek dira eskaintzen diren zerbitzuak:

Ostatua.

Babesa eta gainbegiratzea.

Segurtasuna.

Gune komunetako mantentze-lanak.

Informazioa eta aholkularitza.

Garbitasuna.

Garbitegia.

Otorduak.

3. Objetivos.

Objetivo general:

— Favorecer la existencia de condiciones adecuadas de vida entre las personas usuarias de los apartamentos tutelados procurando el mayor nivel posible de autonomía y de calidad de vida.

Objetivos específicos:

— Posibilitar la permanencia de la persona mayor en su entorno habitual.

— Atender a las necesidades de las personas usuarias mediante el desarrollo de los programas adecuados para conseguir el máximo nivel de autonomía posible.

— Ofrecer a las personas usuarias el debido apoyo y asesoramiento para que puedan seguir manteniéndose en su medio, e informarles de las pautas necesarias para la realización de las labores de cuidado.

4. Tipología de las personas usuarias.

Los usuarios de los apartamentos tutelados deberán ser personas mayores de 60 años con una situación física, psíquica y social que no precise recursos de mayor intensidad y capaces de hacer por sí mismas las actividades de la vida diaria tanto básicas como instrumentales, de forma independiente, con o sin apoyos.

En el supuesto de los apartamentos individuales, habrá solo una persona usuaria, en tanto que en las dobles podrán acoger a un máximo de dos personas, de las cuales al menos una deberá cumplir con el requisito de edad previsto en el apartado anterior.

En todo caso, las personas que previamente formaran parte de algún programa de acompañamiento y/o convivencia establecidos por la administración, tendrán acceso preferente al uso de los apartamentos dobles de titularidad pública.

Edad igual o superior a 60 años.

Ser persona autónoma, valorado por la Diputación Foral de Gipuzkoa (BVD).

Ser valorado por la Diputación de Gipuzkoa como apto para este servicio (RAI).

Se puede atender también a personas valoradas con un grado de dependencia moderada (BVD 1-1) y consideradas Aptas para plazas residenciales básicas y/o con un deterioro cognitivo leve y/o con cargas sanitarias mínimas asumibles por este tipo de equipamientos.

El procedimiento de admisión de estos recursos, vendrá definido por el Decreto Foral 20/2002 de 30 de abril por el que se regula el régimen de acceso y adjudicación de plazas para personas mayores dependientes en Gipuzkoa.

5. Tipología de servicios.

Los servicios que se prestan, son los siguientes:

Alojamiento.

Tutela y supervisión.

Seguridad.

Mantenimiento de zonas comunes.

Información y asesoramiento.

Limpieza.

Lavandería.

Comida.

Osasun-arreta (Osakidetzak).

Norberaren higieena.

Askotariko erabilera duen gunea.

RAI balioespenak markatzen dizkigun Banan-banako Arreta-planak ezarritako protokoloak.

Autonomia pertsonala bultzatuko da, banan-banako balioespen integralak eta aldizkakoak eginez, eta horietan eguneroko bizitzako jarduerak eta arreta integrala aztertuko dira.

Erabiltzaileei Banan-banako Arreta-plan bana egingo zaie, gerora azal litezkeen gabeziak prebenitzeko eta daudenak kentzeko edo arintzeko.

Nahiz eta erabiltzaileak gai izan beren kabuz moldatzeko Bizitzako Oinarritzko Jardueretan (EBOJ), gero eta behar gehiago izango dituzte, eta, beraz, beharrezko izango da zerbitzu eskaintza egokitzea; horretarako, denborak aurrera egin ahala, zerbitzu-mota gehiago eta intentsitate handiagoz eskaini beharko zaizkie, pertsona horien bizimodu normalizatu bermatzeko eta autonomia sustatzeko. Horregatik, aztertu beharra dago eguneroko bizitzako jardueretan laguntza emateko aukera. Laguntzak, puntualak edo etengabeak eta arinak izan daitezke eta zuzenean eman ahal izango dira edo beste zerbitzu batzuekin koordinatuta.

Erabiltzaileen harreman-sareei eta gizartean parte-hartzeari buruzko jarduerak hobetzea bultzatuko da.

6. *Prezioen erregimena eta ordaintzeko modua.*

Udalak, Gizarte –Zerbitzuen sailean, plazaren urteko prezioa ezarriko du, zerbitzuak sortuko duen kostuaren arabera. Datu horiek aurreko ekitalditik aterako dira.

Zerbitzuaren erabiltzaile bakoitzak zerbitzuaren prezio osoa ordainduko du.

Erabiltzaileak zerbitzua ordaintzeko adina diru-sarrerarik ez badu, udal prezio publikoak eta tasak ordaintzeko dauden diru-laguntzak eska ditzake.

Egoera ekonomikoa baloratzeko aintzat hartuko dira ondasunak (ohiko etxebizitza kontatu gabe) (higigarrien eta higiezin kapitala) eta errentak (higigarrien eta higiezin errendimenduak eta pentsio, soldata, eta antzeko diru-sarrerak).

PREZIOAK

<i>Zerbitzuak</i>	<i>Pertsonako eta hileko kostua</i>
Lehenengo erabiltzaileak janari zerbitzurik gabe	480
	590

7. *Eskubideak.*

Laguntza jasotzeko eskubidea du, eta ezin da inolako bereizkeriarik egin, sexu, arraza, erlijio, iritzi, nahiz bestelako inguruabar edo egoera pertsonal zein sozialak aintzat hartuta.

Erabiltzaileak diren aldetik, edozer gairi buruz informazioa jasotzeko eta kontsultatua izateko eskubidea, bai interesatzen zaielako, bai beraiekin zerikusia duelako.

Sartzean, pertsona bakoitzaren balioespen orokorra egiteko eskubidea, bere datu fisikoak, psikikoak, gizartekoak eta funtzionalak aintzat hartuz.

Balioespen horren emaitzetan oinarrituta, Banan-banako Arreta-Plana (BAP) zehaztuko da; plan hori aldizka berrikusiko da.

Eskaintzen den zerbitzuak honako osagai hauek izango ditu:

Atención sanitaria, por parte de Osakidetza.

Higiene personal.

Espacio de uso polivalente.

Protocolos marcados por el Plan de Atención Individualizado (PIA) que nos marca la valoración RAI.

Se favorecerá la autonomía personal mediante la realización de valoraciones personales integrales y periódicas, que abarcaran a las actividades de la vida diaria y la atención integral.

Se realizará un PIA (Plan de Atención Individualizado) de cada usuario con objeto de prevenir posibles carencias y suprimir y/o aliviar déficits existentes.

Hay que tener en cuenta que, aunque las personas usuarias se valen por sí mismas para la realización del conjunto de actividades de la vida diaria (ABVD), será preciso, adecuar la oferta de servicios a sus requerimientos crecientes, dotándola de una mayor diversidad e intensidad de prestación con el paso del tiempo para preservar la vida normalizada y fomentar la autonomía de esas personas. Por eso, se debe contemplar la opción de proporcionar ayuda para la realización de las actividades de la vida diaria, con carácter puntual o continuado y con baja intensidad, bien de forma directa o mediante la coordinación con otros servicios.

Se fomentarán actividades enfocadas a mejorar los aspectos relacionales y de participación social de las personas usuarias

6. *Regimen de precios y forma de pago.*

El Ayuntamiento, en su Departamento de Servicios Sociales, establecerá un precio de plaza anual en función del costo que genere el servicio. Se recogerá con los datos del ejercicio anterior

Cada usuario del servicio, pagará el precio total.

En el caso de no tener ingresos suficientes, podrá acceder a las ayudas económicas para el pago de tasas y precios públicos municipales.

Para valorar la situación económica, se tendrá en cuenta el patrimonio (Sin computar la vivienda habitual) (Capital inmobiliario y mobiliario) y las rentas (rendimientos inmobiliarios y mobiliarios e ingresos derivados de pensiones, salarios).

REGIMEN DE PRECIOS

<i>Servicios</i>	<i>Costo por persona y mes</i>
Usuarios anteriores sin servicios de comida	480
	590

7. *Derechos.*

A recibir asistencia sin discriminación por razón de sexo, raza, religión, ideología o cualquier otra condición o circunstancia personal o social.

A ser informadas y consultadas sobre cualquier asunto que pueda afectarles o interesarles en su calidad de usuarias.

Una valoración general de cada persona en el momento de entrar donde se tienen en cuenta sus datos físicos, psíquicos, sociales y funcionales.

En base a esa valoración se determinará un Plan de Atención Individualizado (PIA) que será revisado periódicamente.

El servicio que se ofrece constará de:

— Oinarrizko arreta pertsonala. Autonomiarik gabeko pertsonen beharrak betetzeko.

— Eguneroko Bizitzako Jardueretan parte hartzeko eskubidea.

— Jarduera soziokulturaletan parte hartzeko eskubidea.

Pertsona bakoitzaren otorduak onak, neurrikoak eta denetarikoa izateko eskubidea, betiere beren beharrei egokituta.

Behar duen arreta pertsonalizatua bakarka jasotzeko eskubidea; gizalegez, begirunez eta goxotasunez jasotzeko ere.

Beren intimitateari dagozkion datu pertsonalak isilpean tratatzeko eskubidea.

Bere intimitatea errespetatua izateko eskubidea, besteak beste tratamendu egokia bermatuz eta harreman pertsonalak izateko duen askatasuna errespetatuz.

Lagunen eta senideen bisitak jasotzeko eskubidea.

Eskubidea du apartamentuetako zuzendaritzari zerbitzuak hobetzeko proposamenak edo beraien funtzionamenduari buruzko kezak aurkezteko, baita horiei dagozkien erantzunak jasotzeko ere.

Beren gogoz zerbitzuak erabiltzeari uzteko edo apartamentuetako egonaldia eteteko eskubidea.

Eskubideak zeintzuk diren eta haietaz baliatzeko dauden bideak ezagutzeko eta horretaz behar bezala eta ondo eta erraz ulertzeko moduan informatuak izateko eskubidea.

8. *Betebeharrak.*

Errespetuan eta tolerantzian oinarritutako jokabidea izatea, hori beharrezkoa baita elkarbizitza egokirako.

Gizarte Zerbitzuetako sailak emandako agindu-jarraibideak onartzea edo betetzea.

Kanpora joan beharra izanez gero, garaiz jakinaraztea.

Etxebizitza txukun zaintzea.

Nork bere burua zaintzeko laguntzaileek emandako aginduak onartzea (esate baterako garbitasuna).

Otorduen eta egiten diren jardueren ordutegia errespetatzea.

Babespeko etxeetako udal arduradunen agindu-jarraibideak onartzea.

Bizilekua aldatzeko eskaera onartzea, Gizarte Zerbitzuetako sailak horrela erabakitzen duenean.

9. *Erabiltzaile izateari uztea.*

Babespeko apartamentuen erabiltzaile izateari ondoko arrazoiak direla-eta utziko zaio:

— Bere gogoz hala nahi duelako; hori ez dugu guk uste izango eta argi eta garbi adierazi beharko da idatziz.

— Aurretik ezarritako prezioa ordaindu ez duelako.

— Zigor baten ondorioz kanporatua izan delako.

— Hil egin delako.

— Sartzeko eskubidea ematen dion baldintzetakoren bat galdu duelako.

10. *Barruko dokumentazioa.*

Babespeko apartamentuetan erabiltzaileen ondoko dokumentazioa jasoko da:

— Atención personal básica. Orientada a cubrir las necesidades de las personas que no pueden satisfacer por falta de autonomía.

— Participación en las Actividades de la Vida Diaria.

— Participación en las Actividades de Animación Sociocultural.

Tener un régimen de comida adaptado en cantidad, calidad y variedad a las necesidades específicas que presenta cada persona.

A recibir la necesaria atención con corrección, respeto y comprensión, de forma individualizada y personalizada.

Al tratamiento confidencial de los datos personales que afecten a su intimidad.

Al respeto a su intimidad garantizando el tratamiento adecuado y respetando su libertad para mantener relaciones personales, entre otros aspectos.

Recibir visitas de familiares y amigos.

A elevar a la dirección de los Apartamentos propuestas o reclamaciones concernientes al funcionamiento o a la mejora de los servicios y a recibir respuesta sobre las mismas.

A cesar en la utilización de los servicios o en la permanencia en los apartamentos por voluntad propia.

A ser debidamente informadas, en lenguaje fácilmente inteligible, del contenido de estos derechos y de las vías existentes para hacer efectivo su ejercicio.

8. *Obligaciones.*

Observar una conducta basada en el respeto y tolerancia, necesaria para una convivencia adecuada.

Aceptar o cumplir las instrucciones emanadas del Departamento de Servicios Sociales.

Comunicar todas las ausencias con tiempo suficiente cuando se vayan a producir.

Mantener en buenas condiciones la vivienda.

Aceptar las instrucciones de las auxiliares para atender a su atención personal (como por ejemplo en el aseo).

Respetar los horarios de comidas y de las actividades que se realicen.

Aceptar las instrucciones del responsable municipal de los apartamentos tutelados.

Aceptar el cambio de domicilio cuando así se establezca desde el Departamento de Servicios Sociales.

9. *Perdida de condición de usuario.*

La condición de usuario de los apartamentos tutelados se perderá por las siguientes causas:

— Por renuncia voluntaria que en ningún caso se presumirá, sino que deberá constar de forma expresa e inequívoca.

— Por no abonar el precio que se le estipule.

— Por expulsión derivada de una sanción.

— Por fallecimiento.

— Perdida de cualquiera de los requisitos de entrada.

10. *Documentación interna.*

En los apartamentos tutelados, se recogerá la siguiente documentación de los usuarios:

— Erabiltzaile bakoitzarekin karpeta bat irekiko da. Karpeta horretan erabiltzailearen datu administratiboak, osasunezkoak eta gizarteak jasoko dira; baita banan-banako arreta-plana ere.

— Erregistro liburua, erabiltzaile bakoitzaren RAI balioespenak adierazitako jarraibideak jasotzeko.

— Liburu bat, erabiltzaile guztien eguneroko gorabehera guztiak jasotzeko. Liburu hori zenbatuta, zigilatuta eta sinatuta egongo da.

— Kexak jasotzeko liburu bat, erabiltzaileek egin nahi diziguten kexak jasotzeko.

Iradokizun-postontzia erabiltzaileek egin nahi dituzten iradokizunak jasotzeko.

11. Parte hartzeko bideak.

Horrekin babespeko apartamentuetako erabiltzaileen gozko parte hartzea egituratu nahi dugu.

Ordezkaritza organoak:

Batzar Nagusia.

— Apartamentuetako erabiltzaile guztiek osatuta.

— Ohiko bilera urtean behin egingo dute, eta bilera bereziak, behar adina.

Ordezkarien Batzordea.

Hauek izango dira kideak:

— Erabiltzaileek beraien artean aukeratutako 2 kide.

— Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi-ordezkaria.

— Babespeko apartamentuen ardura duen gizarte-laguntzailea

— Mantentze-laneko arduraduna

— Hiru hilabetetik behin izango dute ohiko bilera, eta bilera bereziak, berriz, behar adina.

12. Barne araudia.

Babespeko apartamentuetako erabiltzaileak egitez edo ez egitez instalazioetan eragiten dituzten kalte-galeren erantzule izango dira; modu berean sortuko diren iskanbilen erantzule izango dira.

Egite eta ez-egite horiek direla-eta sortutako erantzukizun zibil eta penalak dagozkien epaitegi edo auzitegiaren eskatu ahalko dira. Horrez gain, erabiltzaileek araudi honetan jasotako faltaren bat egin dutenean prozedura administratiboaren legeak ezartzen duen zigor-prozedura aplikatuko zaie, oro har.

12.-1. Hutsegiteak

Hutsegite oso larriak:

Hiru hutsegite larri edo gehiago egitea.

Beste erabiltzaileei edo apartamentuetako langileei eraso fisikoak edo tratu txarrak eragitea.

Erabiltzaile izanik mesede gehiago izateko, aitorpenak faltutu edo ezkutatzea, edo gezurrezko datuak ematea.

Apartamentuetako ondasunei edo elkarbizitzari kalte nabarmenak eragitea.

Hutsegite larriak:

Hiru hutsegite arin edo gehiago egitea.

— Una carpeta por cada usuario donde se recojan sus principales datos administrativos, sanitarios y sociales. Es en esta carpeta donde se recogerá también su PIA.

— Registros para las pautas que nos marca la valoración RAI de cada uno de los usuarios.

— Un libro donde se recojan todas las incidencias del día y con cada persona, numerado, sellado y firmado.

— Un libro de reclamaciones para aquellos usuarios que quieran realizarlas por escrito.

— Un buzón de sugerencias para recoger las sugerencias que nos quieran transmitir los usuarios.

11. Cauces de participación.

Con esto queremos estructurar la participación activa de los usuarios de los apartamentos tutelados.

Órganos de representación:

Asamblea General.

— Constituida por el conjunto de los usuarios de los apartamentos.

— Se reunirán en sesión ordinaria una vez al año y en sesión extraordinaria cuantas veces sea necesario

Junta de Representantes

Estará formada por:

— 2 miembros elegidos entre los usuarios de los apartamentos.

— Concejal Delegado de Servicios Sociales.

— Asistente Social responsable de los apartamentos tutelados.

— Responsable del mantenimiento

— Se reunirá una vez al trimestre, en sesión ordinaria y en sesión extraordinaria, cuantas veces sea necesario.

12. Reglamento de regimen interno.

Los Usuarios de los apartamentos tutelados, serán responsables de los daños o perjuicios que por acción u omisión causen en sus instalaciones, así como de las alteraciones de orden que se produzcan.

Sin perjuicio de la responsabilidad civil o penal en la que pudieran incurrir por tales actos u omisiones, que podrán exigirse ante los juzgados y tribunales correspondientes, si los usuarios cometiesen alguna de las faltas previstas en este reglamento, serán objeto del procedimiento sancionador que, con carácter general, establece la ley de procedimiento administrativo.

12.-1. Faltas.

Faltas muy graves:

La reiteración de tres o mas faltas graves.

La agresión física o malos tratos hacia los demás usuarios o personal de los apartamentos.

Falsar u ocultar declaraciones o aportar datos inexactos o relevantes en relación con la condición de usuario para obtener beneficio.

Ocasionar daños relevantes en los bienes de los apartamentos o perjuicios notorios en la convivencia.

Faltas graves:

La reiteración de tres o mas faltas leves

Apartamentuetan egin beharreko jardueri nahita eta beti edo ia beti trabak jartzea

Instalazioetako, langileen edo beste edozein erabiltzailearen ondasunak edo beste edozer gauza lapurtzea.

Hutsegite arinak:

Erabiltzailearen edo zerbitzuko langileren bati zor zaion errespetuari huts egitea, bai tratu edo jarrera desegokiak erabiltz, bai begirunerik gabeko hitz desegokiak esanez.

Apartamentuetako altzariak, instalazioak edo objektuak erabiltzean izandako axolagabekeria eta utzikeria, ez bada erabiltzailearen adinari edo gorputz egoerari egoztekoa.

12.-2. Zigorrak.

Hutsegite oso larriak:

Apartamentuetatik kanporatzea, hiru hilabetetik sei hilabetera artean; batzuetan kanporatzea behin betikoa izan daiteke.

Hutsegite larriak:

250 euroko isuna.

Gehienez hiru hilabete arteko kanporatzea.

Hutsegite arinak:

Ohartarazpenak.

150 euroko isuna.

— Hutsegite larriak lau hilabetera geratuko dira baliogabe, eta oso larriak, urtebetera; baina bitarte horretan interesdunari jakinarazten bazaio espedientea abiarazi dela, ez dira baliogabe geratuko. Hutsegite arinak baliogabe geratuko dira, zigorrik ezartzen ez bada.

Hutsegite arinak Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi-ordezkarriak erabakiko ditu, interesdunari prozedura laburreko entzualdia eskainiz.

Hutsegite larriak eta oso larriak Gobernu batzordeak erabakiko ditu, Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi-ordezkarriak alde aurretik bideratutako espedientearen bitartez, 1993ko abuztuaren 4ko 1338/1993 Errege-dekretuan ezarritako prozedurari jarraituz.

Legazpi, 2013ko otsailaren 12a.—Kepa Urzelai Goitia, Alkatea. (2380)

Entorpecer intencionada y habitualmente las actividades a realizar en los apartamentos

La sustracción de bienes o cualquier clase de objetos, propiedad, de las instalaciones, del personal o de cualquier otro usuario.

Faltas Leves:

La simple falta de respeto, manifestada en incorrección de trato, actitudes o palabras desconsideradas o inconvenientes hacia otro usuario o hacia el personal adscrito a dicho servicio.

El descuido o negligencia, no imputado a la edad o a las condiciones físicas de la persona, en el uso del mobiliario, manejo, objetos o instalaciones de los apartamentos

12.-2. Sanciones.

Faltas Muy Graves:

Expulsión temporal de los apartamentos por periodo de tres a seis meses, pudiéndose llegar en determinados casos, hasta la expulsión definitiva

Faltas Graves:

Multa de 250.

Expulsión por un periodo no superior a tres meses.

Faltas Leves:

Apercibimientos.

Multa de 150 euros.

Las faltas Graves, prescribirán a los cuatro meses y las Muy Graves, un año, siempre que en esos periodos de tiempo no se le haya comunicado al interesado la incoación de expedientes o, en el caso de faltas leves, se le haya impuesto la sanción.

Las faltas Leves se resolverán por el Concejal Delegado de Servicios Sociales mediante un procedimiento abreviado de audiencia con el interesado.

Las faltas Graves y Muy Graves, las resolverá la Comisión de Gobierno previo expediente instruido por el Concejal Delegado de Servicios Sociales conforme al procedimiento establecido en el R.D. 1338/1993 de 4 de agosto

Legazpi, a 12 de febrero de 2013.—El Alcalde, Kepa Urzelai Goitia. (2380)